

Miranderen liburuaz aurkezpena

Jon Miranderen poesiaz egin dudan liburu hau elebiduna da. Uste dut lagungarri izanen zaiela euskara ikasten dutenentzako, baita, sarritan, euskara idatzia frantsesa bezain ongi irakurtzen ez dutenentzat.

Zer ekartzen duen argitalpen honek? Lehen berritasuna. Miranderen lehen olerki ia ez ezaguna *Sonetoa*, suizidioaren alde 1947 idatzi zuena. Gero, bere poesiaz eta amestu zuen euskal literaturari buruzko hiru testu berriz eman ditut. Bigarren berritasuna, Jonen ilobei eta Pablo José Aristorenari zor diegu: Jon Miranderen liburutegiko seiehun liburuen izenak. Hirugarren berritasuna poetaren diskoen lista. Laugarren berritasuna ilobek frantsesez idatzi eta euskaraz jarri dudan Mirande familiaren Pariseko bizitzaz biografia.

Mirandek ingelesetik, alemanetik, bretoieratik itzuli poema eta kantuak ez ditut liburuan sartu.

Akatsik baldin bada, frantsesez izanen da: alde batetik Jon Mirande bezain trinkoa izaten saiatu naizenean frantsesa bortxatu dudalako. Olerki baten, poema baten itzulpena ezin da sekulan zehatza izan, alde batetik poesiaren gramatika ez delako sekulan gramatika arrunta. Mintzaira batetik bestera olerkiaren barne errimak, erritmoa eta anitzetan nabardurak galtzen dira. Itzulpenak beti zerbait hausten du, baina itzulpen molde gaitzenak gaiaren, sujetaren erran nahi orokorra argi dezake.

Saran, 2013ko apirilaren 1ean
Txomin Peillen